

# Asisko gutuna

2010eko abuztua. 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

barnerantz, umiltasuna

22. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Edozein aukera dugula-eta, erraz erortzen gara geure burua besteak baino hobetzat edo gehiagotzat jotzeko tentazioan. Errealitatearen edozein barrutitan gertatzen da hori, baita mundu erlijiosoan edo fedekoan ere. Behin baino gehiagotan aurkitzen dugu geure burua besteari juzku egiten, hura norbera

denarekin edo norberak dakienarekin edota lortu duenarekin konparatuz. Asisko sareak haratago, bihotzaren hondoraino, begiratzera gonbidatzen gaitu, hor aurkitzen baitugu geure egia, dugun alde onenarekin eta geure muga eta ahuleziekin, horiek besteen antzeko egiten gaituztelarik.

## Gogoetarako gaia

### Jakinduria eta xalotasuna

Kristauok segurtasun-berme gisa sentitzen dugu, sarritan, geure fedea: nik Jainkoagan sinesten dut; horrek arrazoia ematen dit eta nirea da egia. Batzuetan halako ziurtasunez bizi dugu fedea, non ia zauritu ezin sentitzen garen. Eta horrela jar dezakegu geure burua egian bizi ez diren besteen gainetik.

Jainkoaz zerbait ulertu dugula uste dugun orduko, Haren jabe egiten gara: azkenean atzitu dugu Jainkoa, jada geurea da. Eta Haren jabe egiten garen orduko, hura joana da. Ni kristaua naiz, Jainkoak aukeratu nau, jada hobea naiz. Ziurtatua daukat nire salbazioa, bekatzuz beteriko beste mundu horrek ez bezala.

Bizitzan zehar ikasiz goazenak, apaltasuna irakatsi ordez, harro sentiarazten gaitu geure ezagutzaz eta esperientziatz, eta horrela aurkez gaitezke besteengana goitik behera begiratuz, haien bihotzaren juzku egitera ausartuz.

Frantziskok jakinduria handia zuen Jainkoari buruz, baita giza errealitateari buruz ere. Horregatik jakinduria xalotasunarekin uztartu zuen. "Agur, erregina jakinduria, Jaunak gorde zaitzala zeure ahizpa xalotasun garbi santuarekin". Ez dago jakinduriarik xalotasunik gabe, ez dago jakinduriarik geure txikitasunaz jabetu gabe. Jakinduria eta xalotasuna eskutik doaz, horrek kontraesana badirudi ere.

Zorionekoak deitu zien Jesusek bihotzez pobre direnei, ezjakin direnei, misteriora pretentsiorik gabe, dena espero izanez, hurbiltzen direnei. Behartsua esku hutsik, dena emango zaiola uste izanez, aurkezten da bere Jaunaren aurrera .

Jainkoaren begirada errukiorrera etengabe hurbiltzeak ematen digu geure errealitatearen neurria eta uzten digu espiritu horretatik besteei begiratzeko. Hortik onar dezakegu geure hauskortasuna; jakin uste dugunak ez digu ezer ziurtatzen, ez gaitu inorengandik bereizten. Soilik Jainkoa da dakiena.

## Ebanjelioko pasartea: Lk 18, 9-14a

Honako parabola hau esan zien Jesusek beren buruak zintzotzat hartzen eta besteak gutxiesten zituzten batzuei: Bi gizon tenplura igo ziren otoitz egitera, bata fariseoa eta bestea zergalaria. Fariseoak, zutik, honela ziharduen otoitzean bere baitan: "Ene Jainkoa, eskerrak zuri besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile edota adulteriogile; ezta horrako zergalari hori bezalakoa

ere. Astean bi bider egiten dut barau, eta ondasun guztien hamarrenak ordaintzen ditut". Zergalaria, berriz, urruti gelditurik ez zen begiak lurretik altxatzen ere ausartzen, baizik eta bularjoka ari zen esanez: "Ene Jainkoa, erruki zaitez bekataria honetaz". Benetan diotsuet, azkeneko hau Jainkoarekin bakean itzuli zela etxera; fariseoa, berriz, ez.

## Espiritualtasun frantziskotarra

*¿Nor zara zu, ene Jainko txit ezta? Eta nor naiz ni, zure morroi ezereza? “Loretxoak” kontakizunak dioenez, galdera hauek eginez aurkitu zuen anai Leonek Frantzisko, hau baso barruan otoitzean ari zela.*

Nor zara zu eta nor naiz ni? Aspaldiko galdera eta gaurkoa horixe: Jainkoaz galdetzea eta norbere nortasunaz galdetzea, horixe bizitzako galdera.

Baina Frantziskoren galdera hori, galderaz gain eta bereziki, erantzuna da: *“ene Jainko txit ezta”* da Jainkoa, eta gizakia *“morroi ezereza”*. Izan da, hori Frantziskoren antropologia ezezkortzat hartu duenik, Frantziskok pertsonari balio gutxi emango balio bezala eta pertsonen toki eta balioa ikusiko ez balu bezala.

Beste batzuk, alderantziz, hori buruargitasuntzat, egiatzat eta ebanjelioko orekatzat hartu dute; izan ere, *“Jainkoak goi-gaian jarri baitu gizakia eta bere Seme maitearen irudira sortu, baina horietan gizakiak ez du bererik ezer eta ezin da horietaz harro”* (5. Ahol).

## 86 (85) Salmotik

Makurtu belarria, Jauna, entzun;  
babestu nire bizia, zuri atxikia bainago.  
Zu zara ene Jainko:  
salba ezazu zerbitzari hau, zuregan baitut uste on;  
erruki nitaz, Jauna: zuri deika ari naiz egun osoan;  
alaitu zerbitzari honen bihotza,  
zuregana jaso baitut gogo, Jauna.

Ona zara, Jauna, eta barkabera,  
Dei egiten dizutenentzat onginahiz betea.  
Makurtu belarria nire otoitzetara, Jauna,  
egin kasu nire erregu-oihuari.

Erakuts iezadazu, Jauna, zure bidea, zurekiko leial  
joka dezadan;  
Batu nire bihotza barnean, zureganako begirunean  
bizi nadin.

Jauna, ene Jainkoa, bihotz-bihotzez eskertuko zaitut,  
niretzat duzun maitasunagatik,  
Herio-Leizetik atera nauzulako.  
Zu, Jauna, Jainko bihozbera eta errukiorra,  
haserregaitza, onginahiz eta leialtasunez betea:  
itzul niregana, erruki zakizkit.

## Gutuneko azken hitzak

“Barrutik” ulertzea eta entzutea da jakinduria. Eta hori ikasteko, begiak errealitatera makurtu behar dira, errealitatea existentziaren dohain gisa maitatuz.

## 2010eko iraileko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate iraileko erreferentzia guztiak:

1 Lk 4, 38-44	8 Mt 1,1-16.18-23	15 Jn 19, 25-27	22 Lk 9, 1-6	29 Jn 1,47-51
2 Lk 5, 1-11	9 Lk 6, 27-38	16 Lk 7, 36-50	23 Lk 9, 7-9	30 Lk 10, 1-12
3 Lk 5, 33-39	10 Lk 6, 39-42	17 Lk 8, 1-3	24 Lk 9, 18-22	
4 Lk 6, 1-5	11 Lk 6, 43-49	18 Lk 8, 4-15	25 Lk 9, 43b-45	
5 Lk 14, 25-33	12 Lk 15, 1-32	19 Lk 16, 1-13	26 Lk 16, 19-31	
6 Lk 6, 6-11	13 Lk 7, 1-10	20 Lk 8, 16-18	27 Lk 9, 46-50	
7 Lk 6, 12-19	14 Jn 3,13-17	21 Mt 9,9-13	28 Lk 9, 51-56	

## Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua [asissarea@arantzazu.org](mailto:asissarea@arantzazu.org) helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: “Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak”.

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).

# Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

## Asisko gutuna

2010eko abuztua 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

barnerantz, umiltasuna

22. zenbakia

Noski dugula geure burua aberastasunez betea, eta noski garelako gero eta jakinduria gehiagokoak, bizitza kontzienteki bizitzearen esperientziaren bidez. Asisko gutunak hil honetan hau guztia bere tokian kokatzen laguntzen digu. Norberaren baitan aberastasun horien esperientzia izan duenak, egin du topo baita norbere hauskortasun eta ahuleziekin ere eta horrela, bera beste guztiekin berdin egiten duen errealitateaz jabetuz, hartu duen guztia eskertzen du eta besteen zerbitzuan jartzen.

### Jakinduria eta xalotasuna

Zeure egiazko aberastasunez eta horien artean zeure jakinduriaz jabetzen zarelarik, zer jarrera hartzen duzu besteen aurrean? Besteak baino hobea edo gehiago sentitzen zara aberastasun horiengatik? Zergatik?

Ulertzen eta onartzen duzu, xalotasunik gabe ez dagoela benetako jakinduriarik? Horiek uztartu gabe bizitzeak adieraz dezake, ustez daukagun jakinduria ez dela jakinduria eta bidean goazela ...

Zer oihartzun dute zuregan Jesusen hitz hauek: *“Zorionekoak bibotzez behartu direnak”*? Ematen dizute argirik? Zertan?

### “Erruki zaitetz bekatari honetaz”

Gauza ez da geure buruari zigorra ematea fariseuaren antzeko ikusten garenean, beste hau baizik: norberak Jainkoaren aurrean dituen jarrera ezberdinak sumatzea eta konturatzea, konfiantzak bakarrik hurbil gaitzakeela Harengana.

Sentitu duzu esperientzia hau: dituzun dohain guztiak edukita ere, ez daukazula ezer Jainkoari eskaintzeko? Apika une honetan ari zara egoera hori bizitzen. Ziurki momentu aparta duzu hori: jar zaitetz apalki Jainkoaren aurrean, zeure errealitateaz jabetuz, eta esan iezaiozu: *“Jauna, erruki zaitetz bekatari honetaz”*.

Merituek ez dute ezer balio Jainkoa irabazteko ...

### Nor zara zu, eta nor naiz ni?

Frantziskok argi zeukan, pertsonaren nortasuna Jainkoari begira dagoela. Zer ginateke gu Hura gabe?

Zeure dohainak, ezaugarriak, gaitasunak eta jakinduria bera Jainkoaren dohain bezala sentitzen dituzu, ala zeureak egiten dituzu? Begira iezaiezu aberastasun horiei denei, eta joango zara ikusiz, iturria ez dutela zeuregan.

Hori konstatatzeak, zeure buruaz ezezkor bihurtzen zaitu? Hala alderantziz, suspertu egiten dizu itxaropena eta konfiantza zeure burua esku onetan duzulako zeuk dezakezunaz haraindi?

### “Salba ezazu bekatari hau, zuregan baitu usteon”

Salmo hau, norbere pobreziaren esperientzia duenaren eta dena Jainkoagandik datorkiola dakienaren adierazpena da.

Geldi zaitetz, edonoren premia eta nahiko-ez-izatea azaltzen duten hitz hauetan: *makurtu belarria, babestu bizia, salba nazazu, erruki nitaz, alaitu bibotza, egin kasu, erakuts bidea, batu bibotza*. Aldi berean Jainkoak gurekiko duen jarrera adierazten dute.

Sumatzen duzu, salmogilearekin batera, non dagoen egiazko jakinduria? Egizu otoitz salmoarekin, egizu hura zeure, haren hitzak zeuri datozkizunekin ordezkatzu.